

EUROPAK IKUSI NAHI EZ DUEN GENOZIDIOAREN BIHOTZEAN

Asier Lauzurika

Zer gertatzen da NATO erakundeko bigarren potentzia militarrek herri bat setiatu eta suntsitzen duenean? Ipar Kurdistandik itzuli berria naiz eta han ikusi eta entzundakoarekin bizi beharko dut: XXI. mendean ere genozidioak egin eta ezkututzen dituzten inpresioarekin.

Euskal ordezkaritza bat Ipar Kurdistanen (Turkiako Estatua) ibili gara. Bisita ezberdinak egin ditugu lekukotasunak entzuten, material grafikoa biltzen... Momentu hun-kigarri ugari bizi behar izan ditugu. Amed (Diyarbakir, turkieraz) hiriko Sur auzoa bisitatu genuenean bezala, esaterako. Bertako sarraskiak dokumentatzeko asmoa genuen. Auzoa hesiz eta poliziaz inguraturik dago. Checkpoint-ak nonahi, Palestinan bezala. Oso kontrol zorrotza pasa genuen bertara sartzeko. Hirian oraindik sei auzo dituzte erabat itxita. Ercanekin elkartu ginen hotelean agenda adosteko. Arratsaldeko lauretan udaletxean ginen Kataluniako ordezkaritzarekin batera. Alkatearen eledunarekin eta HDP alderdiko kideekin batera Sur auzora sartu ginen, bertako zentro kultural kurdura. Bertan setioan hildakoen senideak zeuden, euren etxekoen gorpuak berreskuratzen zain.

Kurduak berehala esplikatzten dizute beraien drama. 55 urteko gizaseme batek kontatu zigun sei auzo dau-dela oraindik setiatuak. 27.000 pertsona mugitu ezinik. Askok alde egin zuten erasoak hasi zirenean. Etxe zaharrak, meskitak, elizak... dena suntsituta. Gizon ha-ren arabera, eraitsitako eraikinetako hondakinak eramaten dituzte turkiar militarrek kamioietan, eta Tigris ibaira bota. Gu izandako asteen 30 hildako zenbatu zituzten Surren (gerrillari zein zibilak). Etxeak bota zituzten okupatzaileek, hondeamakinekin zein tankeekin. Era krudel horretan, etxeetan babestuta zeudenak lurperatu egin zituzten, gure lagun berriak malko artean esplikatu zigunez.

Oraindik ez dakite zehatz-mehatz zer gertatzen ari den. Ez dute ez bizirik daudenen ez hil direnen inguruko informaziorik, baina jakin badakite «etxeak oso-osorik botatzen» ari direla. Oso borroka desorekatua: hondeamakinak eta tankeak, kalaxnikov fusilen kontra. Krimenak egin bezain pronto, ezkutatu egiten dituzte. Hondakin guztiak eramaten dituzte, zer gertatu den inork jakin ez dezan. Okerrena da Europako agintariak militarren konplize bihurtu direla. Gizon hark esan zigunaren arabera, gobernuz kanpoko erakundek ere ezikusiarrena egiten diote sarraskiari. Hori kontatzen zigun momentuan, kalkulatzten zuen 40ren bat gorpu egongo zirela oraindik auzoan.

Beste leku batzuetan (Siriako Kobanen, esaterako) kurduen kontra borrokan ibili diren indar berak dira hemen ere Turkiako Armadarekin batera kurduen aur-



Goiko argazkian ageri den Amed hiriko Sur auzora sartzeko Poliziak ipinitako kontroletatik pasa beharra duzu. Beheko argazkian, aipatu auzoan nagusi den txikizioa. Asier LAUZURIKA





Lau hilabete zeramatzaten su pean. Ez dakite noiz arte jarraituko duen egoera horrek. Auzo horietan beste sei jendarmeria eraikiko dituzte dena kontrolatu nahian. 5.000ren bat etxebizitza suntsitu dituzte dagoeneko. Jendeak ezer gabe egin behar izan zuen ihes bere etxeetatik eta orain esku hutsik daude.

Gainera, baldintza horietan ustelkeria arazorik gabe hedatzen da. Guri kontatutakoaren arabera, Erdogan presidentearen AKP alderdiaren inguruko herritarrek diru laguntzak jaso dituzte. Horiek ez daude hain gaizki, baina gainontzeko guztiek oso egoera kritikoa bizi dute. Dena suntsitu ondoren, bakarren batek sekulako negozioa egingo du berreraikuntza lanekin.

Miguel FERNANDEZ | Asier LAUZURIKA

Krimenak egin bezain pronto, ezkutatu egiten dituzte. Hondakin guztiak eramaten dituzte, zer gertatu den inork jakin ez dezan. Okerrena da Europako agintariak Turkiako militarren konplize bihurtu direla

Auzoan ibiltzea nahikoa da herritarrek konturatutako bene-benetakoa dela konturatzeko: tiroek utzitako zuloak, kristal guztiak txiki-txiki eginda, dendak itxita, orube hutsak nonahi, hondakinak ere eraman egiten baitituzte okupatzaileek. Halako batean bi emakume hurbildu zaizkigu, haserre. Duintasunez azaldu digute batek zuen denda lehegailu batek suntsitu zuela, eta beste bonba batek bes-



tearen etxea txikitu zuela. Beste auzo batera joan ziren, baina bertatik ere ihes egin beharrean izan ziren. Kurdua izanez gero ez da bakerik gaur egungo Turkian, Erdoganek krudelkeriaz zuzentzen duen Estatu ustez demokratikoan.

Gu turista moduan sartu ginen eremu hartara, eta kazetari lana egin. Surreko kultur etxean bertako kazetariak etorri zitzaizkigun, beren lekukotasuna eskaintzera. Oso garbi utzi ziguten Europak duen jarrerarekin oso haserre daudela,

Guri kontatutakoaren arabera, Erdogan presidentearen AKP alderdiaren inguruko herritarrek diru laguntzak jaso dituzte. Horiek ez daude hain gaizki, baina gainontzeko guztiek oso egoera kritikoa bizi dute

Sekulako ilarak. Oinez joan gara militarrek dauden lekura. A ze koadroa! Oso urduri daude, urduriegi gauza onerako. «Horiek pasatuta zeudek, hi!», esan dit lagunak. Tankeak, frankotiratzailleak, ura jaurtitzen duten tanketak...

eta eskatu ziguten han ikusitakoa zabal-tzeko. Beraien iritziz, europar politikar-ien isiltasuna lortu du Erdoganek Siria-ko errefuxiatuekin Brusela presionatzen duelako –nahi duenean bideak zabaldu, eta, nahi duenean, berri- itxi–.

Kontatu ziguten Europako kazetari batzuk iritsi zirela Cizre hirira, eta esan zitzaizela bertan zer gertatzen ari zen: herri-tarrak bizirik erretzen zituztela tropek. Baina guri esandakoaren arabera, kazeta-ri horiek ez zuten horrelako ezer kontatu Europara itzultzean. Ulertezina egiten zitzaien. Baita guri ere.

Herritar kurdu horien egoera ez da ba-tere eroso. Batzuetan setiatuta dauden lagunen deia jasotzen dute, militarrek hurbiltzen ari direla eta guztiak hilko di-tuztela esanez. Handik egun batzuetara iragarritakoa bete egin dela ikusten dute, ezintasuna areagotuz.

HONDAKINEZ BETETAKO KAMIOIAK

Surren begi bistakoa da potentzia okupa-tzailea bere krimenak ezkutatzen saia-tzen ari dela. Eremua barrikadaz josita dago eta ez da inor ikusten kalean; ezta etorbide nagusian ere. Puntu zehatz ba-tean zer gertatu den inork jakin ez dezan, izara handiak ipini ditu Poliziak. Umeak gerrillariz mozorrotzen dira jolasteko, hondakinez betetako kamioi artean. Ber-takoek esan digute ibilgailu horietan gor-puak ere ateratzen dituztela turkiarrek. Egoera larriagotzen du setiatuta daude-nekin komunikatzeko aukera ezak.

Goiko irudian, Turkiako militarrek Cizre hirira doan errepidean, kurduak pasatzerik izan ez dezaten. Ezkerrekoan, Amedeko Sur auzoko kurduak etxeratzeko agindua bukatu arte zain, itxitako eremura sartu ahal izateko.

Asier LAUZURIKA | Miguel FERNANDEZ



Sur ezagutu ondoren, eta bertan entzundakoak entzun ostean, Cizre hirira joatea (saiatzea behintzat) ezinbesteko da. Amedeko Turistik hotelean egin dugu hitzordua, goizean goiz: 06:30ean. Mardinetik pasatzean esan digute bidea Nusaybin itxita dagoela, herri hori ere setiopean baitute. Edonola ere, Cizrera joan nahi dugu, eta HDP alderdiko diputatuen laguntza dugu. Beraiek esan digute hiriko Newroz festa debekatuta dagoela eta istiluak aurreikusten dituztela.

Bidea askotan aldatu dugu, kontrolak saihestu nahian, baina alfer-alferrik, *checkpoint*-ak bazter guztietan daude-eta. Halako batean, helmugara iristeko 60 kilometro faltan, ez aurrera ez atzera geratu gara. Sekulako ilarak. Oinez joan gara militarrek dauden lekura. A ze koa-droa! Oso urduri daude, urduriegi gauza onerako. «Horiek pasatuta zeudek, hi!», esan dit lagunak belarrira. Tankeak, frankotiratzaileak, ura jaurtitzen duten tanketak, metrailadoreak, fusilak... Ez digute beste inon horrenbesteko ongietorrik egin!

Ez dago pasatzerik. Atzerritik etorritako ordezkariak, hedabideetako langileak, HDPko diputatuak eta herritarrek elkarrekin, errepide moztuan. Agintariekin bide guztiak itxiko dituzte, baina ez dute inoiz lortuko herri kurdia otzantzea. Batean gerrillaren aldeko abestiak entzuten hasi gara. Gazte eta ez hain gazte dantzan hasi dira errepidean bertan. Tentsioak ikaragarri egin du gora; badirudi

Goiko irudian, Selahattin Demirtas HDPko diputatua Cizre hirira doan errepidean kazetariei eta elkartutako guztiei adierazpenak egiten, kontrol batean. Eskuineko argazkian, martiri kurdien amak dantzan.

Asier LAUZURIKA

soldaduak kargatzeko prest daudela, garsaren aurkako maskarak atera eta janzten ikusi baititugu. Une horretan agertu da Selahattin Demirtas HDP alderdiko burua eta egoera berehala aldatzea lortu du zorionez. Guztiok lasaitu gara, batez ere militarrek. Han bertan hitzalditxo bat eskaini du diputatuak. Cizrera bertan setiatuta daudenei indarra eramatera gindoazela adierazi du. Hiriak jasaten duen egoera gogor salatu du, herritarrek zutik jarraitzen dutela esan aurretik. HD-



Pren elkarriketaren aldeko jarrera gogorarazi du, beste behin. Azkenean, sarraski bat gertatzea ekidin nahian, atzera egitea erabaki dute herritar kurduek. Ordurako beste kontrol batean istilu larriak izan dira jakin badakigu.

Cizre ezagutu ezinik geratu ginen, baina bertako egoeraren berri eman ziguten: 300en bat gerrillari eta zibil hilda, arma kimikoen erabilera, bizirik erretako herritarrek, burua moztutakoak, herritarren babesgune bihurtutako sotoak pro-

pio suntsituta, etxeak eraitsita, tankeak gizakien gainetik pasatzen... Hiriaren hiru laurdenak suntsituta. Iazko abuztuaren deklaratuak udal autonomia ez du Ankarak onartu. Eskualdeko alkate batzuk espetxean dituzte turkiarrek.

Erresistentziak 71 polizia eta soldadu hil ditu Surren, Gobernuak emandako bertsioaren arabera. Kurduek esan ziguten gutxienez 200 hilko zituztela. Baina datu horiek baieztatzerik ez dugu. Bizirik dagoen herri bat baino ez genuen ikusi.